

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Psycho



CHICAGO (AEB), 1959. Robert Bloch idazleak *Psycho* nobela idatzi zuen, Ed Gein hiltzaile ezagunak urte batzuk lehenago burututako izugarrikerietan inspiratuta. Gein 1957an atxilotu zutenetik Alfred Hitchcock-ek hiltzaileari buruzko filma egiteko gogoia zuen eta, nobela irakurri bezain pronto, gidoia ikusi zuen bertan. Ordurako zinegile ezaguna zen, eta bere izena eman zera garesti aterako zitzaizkion nobelaren esku-bideak; baina bere nortasuna ezkutatu eta merke erosteak lortu zuen, 9.000 dolarren truke.

Britainiar zuzendaria Paramount etxeari lotuta zegoen garai hartan. Baina haiek ez zuten Hitchcocken erabakia sustatu; oso aurrekontu txikia eskaini zioten, istorioa higuinarrria eta zinemara eramateko desegokia zela argudiatuz. Ia diru guztia bere poltsikotik ipini behar izan zuen zuzendariak. Kostuak murrizteko, filma zuri-beltzean errodatzeko erabaki zuen. Bete-beteen asmatu zuen: hainbeste miresten zuen Clouzot-en *Les Diaboliques* filmeko giro tetricoa lortu zuen eta, besteak beste, dutxako eszena ezagunari odol gorriaren morbo erraza kendu zion (txokolatea erabili zuen odola ordezkatzeko).

Alfred Hitchcock-ek zuzendutako *Psycho* filmaren amaierako irudiak. Duela ia 50 urte, britainiar zuzendariak psikosia sakontasunez aztertu zuen, pantaila handian lehenengoz. Aurrekontu txikia izan arren, filmak izugarriko arrakasta izan zuen.

Blochen nobelako Norman Bates 40 urtetik gorako gizon alkoholiko eta gizena zen. Hitchcockek alkoholik edaten ez zuen 25 urte inguruko gazte argal eta dotore bihurtu zuen; hala, auzoko edozein gaztetzat hartuko zuten ikusleek, eta Batesen izaera psikotikoen arteko alde nabariagoa eta ustekabeagoa izango zen.

Psycho 1960an estreinatu zuten. Arrakasta handia lortu zuen eta kultuzko film bilakatu zen berehala. Benetako Ed Geinek bezala, Norman Batesek amarengandik tratatu txar emozionalak jaso zituen txikitatik, eta ama-semeen arteko menpekotasun harremana muturrekoa izan zen errealitatean nahiz fikzioan. Biak hala biak, Ed Gein zein Norman Bates, isolatuta bizi ziren eta, ama hil ondoren, identitate gaitz disoziatiboa garatu zuten. Filmean, Fred Richmond doktoreak gaitz horren eraginez hiltzailearen buruan ama bizirik dagoela eta burututako krimenen errudun sentitzen ez dela dio. Azken finean, hilketak amak gauzatzen ditu. Norman, hiltzaile izateaz gain, bere buruaren biktima ere bada.

Norman Batesi fikzioan egindako diagnostiko bera egin zioten Ed Geini zortzi urte geroago, 1968an.

Arrastoak

Henrike VIII.a maitemindua



HENRIKE VIII.A erregeak maitasun gutuna idatzi zion Ana Boleyn-eri 1528an. Badirudi gutuna Erromako espioi batek lapurtu zuela eta Vatikanon gordeta egon dela ia bost mende. Berriki, Britainiar Liburutegiko erakusketa batean aurkeztu dute eskutitza. Bertan, Henrikek Anarekin ezkontzeko “asmo aldaezina” zuela

zioen, eta “nire bihotza betiko soilik zuretzat” izango zela. Erregearen sinaduraren alboan A.B. letrak ageri dira, bihotz baten barruan. Badirudi erregeak burua galdu zuela. Baina burua benetan galdu zuena Ana Boleyn izan zen; handik zortzi urtera, 1536an, lepoa moztu zioten Henrikeren aginduz.